

# **NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETA 1992**

Antolatzaile: Nafarroako Bertsolarien Lagunak elkarte

Babesle nagusia: Nafarroako Gobernua

Bertso transkribaketa: Manu Gomez

Azala: Koldo Txokarro

Argazkiak: Manu Gomez

Jorraketa: Lorentxo Aburuza

Egilea: Nafarroako Bertsolarien Lagunak

Fotokonposaketa: Fonasa

Inprimatzailea: Line Grafic

*D.L.. NA 716 - 1992*

## AURKIBIDEA

	Orrialdea
SAIOAK	
Aintzin solasa .....	7
Azalpenak .....	9
• KANPORAKETAK	
Donazarre .....	13
Luzaide .....	29
Sunbilla .....	44
• FINALA	
Iruñeko Gaiarre antzokian .....	60

## AINTZIN SOLASA

Gure Herrialdeko bertsolari txapelketen bigarren aldia hasteak -1979. urtean- ekarri zuen hainbertzeko poz eta urrats berririk badakar aurten jokatu den Nafarroako XXI. Bertsolari Txapelketak. Lehen aldikoz, kanporaketa ekitaldi eta azken saioan helduak eta gazteak, maisuak eta ikasleak, gizonetakoak eta emakumezko batek parte hartu dute. Bide berri eta agian luze baten lehen urrats honek esperantzari eta gogoetari leihoak zabaldu dizkio.

Hain juxtu ere, iaz Urko Atxutegik hasitako ildo berari jarraikiz, aurten Urko berak eta Lesakako bertze bi gaztek, Estitxu Arozena eta Xabier Silveirak, eman dute aitzinapauso nabarmena. Lesakar gazteak helduekin aurrez-aurre Iruñeko Gayarre antzokian izan ditugu. Oraino maisuak maisu direla argi eta garbi gelditu bada ere, urteetan irakaskuntzan egin den lanak, batetik Oinarrizko Heziketa Orokorrean, eta bertetik bertso eskoletan, bertsolarigaiak plazaratzea lortu du. Hortaz, bada zertan lanik egin datozen urteotan!

Dena den, Nafarroako bertsolaritzaren egoera apala ez du eskolakumeen etorrerak soilik goralduko. Urtez urte, plazaz plaza, txapelketaz txapelketa gogo bizi nahiz apalez ibili eta dabiltzan bertsolari zahar eta ez hain zaharrei esker dirau tente bapatekotasunak Nafarroan. Diruz eta aipamenez ordaindu ezin den eskeintza eta testigantza hori ezinbertzekoa da, datozenekin batean, eskuz eskuko elkarlanean Euskal Herrian goi mailan dabiltzenekin parekatzeko apustuari ekiterakoan.

Etxera itzuliz, ezin da aipatu gabe utzi txapelak denbora luzez estali lezakeen bururik ez duela oraino topatu. Azken urteotan txapelaren inguru-minguruan ibili diren Arozena, Xalbador eta Alkhati, aurten bigarren saria lortu duenaren izena, Bittor Elizagoiarena gehitzea zilegi da. Nork daki izen berririk ere ez ote den agertuko berehalakoan?

Bukatzeko, "Nafarroako Bertsolarien Lagunak" elkarleak, aurtengo liburuxka honen lerro hauexetatik bertzerik ez bada ere, bere eskerrik beroena azaldu nahi die Donazaharre, Luzaide, Sunbilla eta Iruñeko saioen antolakuntzan nahiz bertzelako laguntza eskeiniz txapelketa guzian zehar parte hartu duten guzi haiei. Beraz, eta bertzerik gabe, hona hemen, irakurle, aurtengo txapelketak eman duena. On egin eta egon bizkor!

Iruñean, 1992ko Erramu egunez.

# AZALPENAK

## ANTOLAKETA

Nafarroako Bertsolarien txapelketak bere hogeitabatgarren ekitaldia burutu du aurtengo primaderaren atetan. Urtero bezala Nafarroako Bertsolarien Lagunak elkarteak bere gain hartu du ekitaldi honen zama. Dena den, kanporaketak eta finala bera jokatu diren Donazarre, Luzaide, Sunbilla eta Iruñeko zenbait lagun borondate eta lanari esker egitekoa asko arindu da. Beraz, lerro hauen bidez gure eskerrik beroena azaldu nahi genieke lagun jator guzi hoiei.

## DIRU LAGUNTZAK

Nafarroako Gobernuak, Lankide Aurrezki Kutxa, Kutxa Munizipala, Nafarroako Kutxa eta Luzaide, Sunbilla eta Iruñeko udalek eman dute, bakoitzak bere neurrian, txapelketa hau antolatzeko diru laguntza.

Entitate eta instituzio hauei ere gure eskerrak eskeinitako laguntzagatik.

## PARTE HARTZAILEAK

Nafarroa guziko bertsolariek izan dute izena eman eta plazaratzeko aukera. Aurtengo ekitaldian hogeitalau bertsolarik izena eman zuten, nahiz eritasunak medio hogeitabatek kantatu duten. Zerrenda honetan azaltzen dira partehartzaileak:

- 1) Aire Mixel "Xalbador" (Urepel)
- 2) Alkhat Ernest (Iholdi)
- 3) Amorena Txomin (Zugarramurdi)
- 4) Argiñarena Joxe Fermin (Errazkin)
- 5) Argiñarena Joxe Migel (Errazkin)
- 6) Arzallus Jesus (Hendaia)
- 7) Arozena Estitxu (Lesaka)
- 8) Arozena Manolo (Lesaka)
- 9) Arrosagarai Joanes (Aintzile)
- 10) Atxutegi Urko (Urruña)
- 11) Elizagoien Bittor (Arraiotz)
- 12) Ezponda Txomin (Jatsu)
- 13) Fagoaga Eusebio (Ituren)
- 14) Fagoaga Jose Mari (Ituren)
- 15) Harinordoki Jean Louis (Baigorri)
- 16) Jaso Moises (Gaintza)
- 17) Madariga Bautista (Arantza)
- 18) Madariaga Salbador (Arantza)
- 19) Mendiburu Jean Pier (Heleta)
- 20) Mihura Fermin (Sara)
- 21) Olano Antonio (Arano)
- 22) Perurena Bautista (Leitza)
- 23) Silveira Xabier (Lesaka)
- 24) Yantzi Josetxo (Etxalar)

Jean Pier Mendiburu, Joanes Arrosagarai eta Josetxo Yantzik kantatzerik ez zuten izan gaxorik zeudenez eta hauek ordezkatzeko saiatu ziren Fermin Mihura, Ernest Alkat eta Joxe Migel Argiñarena.

Finalari dagokionez, Jesus Arzallus zegoen puntu gehienekin, baina aukeratuen zerrendan bederatzigarren suertatu zen Xabier Silveirak ordezkatu zuen.

## **BERTSOLARIEN LANA**

Hiru kanporaketa eta finaleko saioan bertsolariek lan berdina bete behar izan zuten.

- Agurra.
- Binaka gaia emanik ofizioan hiruna bertso zortziko haundian.
- Binaka gaia emanik ofozioan hiruna bertso zortziko txikian.
- Puntu bana erantzun.
- Lau oinekin bertso bana osatu.
- Gartzelako lana:
  - Azken puntua emanik bertsoa osatu.
  - Gai bati hiru bertso neurri eta doinu librean.

## **EPAIMAHAIA ETA GAIJARTZAILEAK**

Mikel Bujanda, Aingeru Epaltza, Jean Pier Etxegoien, Mixel Itzaina, Emile Larre eta Joxe Urrozek osatu dute epaimahaia.

Gaijartzaile lanak hiruren artean banatu dituzte. Donazarre eta Luzaiden Beñat Soule izan zen aurkezle, Sunbillan Patxi Larretxea aranaztarra aritu zen gaiak ematen. Eta azkenik Iruñeko finalean Mikel Taberna eta Patxi Larretxearen agindutara kantatu zuten bertsolariek.

## **LIBURUA EGITEKO ERIZPIDEAK**

Azken bost urteotan bezala, lehen partean kanporaketako saioetatik bertso aukeraketa bat egin da bertsolari gehienak laburbilduz.

Iruñeko finaleko saio guztia argitaratzen dugu eta transkribapen guztiaren arduradun Manu Gomez da.

# DONAZAHARRE

## MARTXOAK 8

Donazaharreko saioa 1992ko martxoak 8an ospatu zen Mendi jatetxean arratsaldeko 4etan. Beñat Souleren agindura kantatu zuten bertsolariak honoko hauek izan ziren: Mixel Aire "Xalbador II", Txomin Amorena, Moises Jaso, Antonio Olano, Jesus Arzallus, Ernest Alkhat, Fermin Mihura eta Jose Angel Argiñarena. Azkeneko biak, txapelketaz kanpo zortzikotea osatu asmoz, Jean Pier Mendiburu eta Josetxo Yantziren ordezkariak kantatu zuten, biak erri aurkitzen bait ziren.

### AGURRAK

*J.M. Argiñarena:*

Nafar txoriak kantari gatoz  
urte sasoi bezain goiz  
estuasuak arindu ditzan  
Jaunari eginaz otoiz  
ez nago pozik halaxe ere  
motiboaren arrazoiz  
nahiago nuke gaur Mendiburu  
ikusi alai ta sasoz  
osasu falta zer dan badakit  
probatua naiz ta inoiz.

*J. Arzallus:*

Hasterakoan arratsalde on  
beti bezela deneri  
eta bigarren falta zaigun bat  
datorkit burura neri  
bertsoen erruz baldin badago  
lagun Mendiburu eri  
gaurko saioa sendatutzeko  
asmatan egina bedi.

### ZORTZIKO NAGUSIAN HIRUNA BERTSO:

#### E. ALKHAT - J. ARZALLUS

*Gaia:* Zu Alkhat etxeko nagusia zara eta zu Arzallus etxeko katua.

Gaur goizean 5 ume egin dituzu, azkeneko umaldian nagusiak katu guztiak bota zituen errekarara.  
Hiruna bertso zortziko nagusian Alkhat hasita:

*E. Alkhat:*

Nik zakurretik badaukat bainan  
etxen katuak nagusi  
orain artean bere umekin  
bere xokoan dut utzi  
katua bait da berez ohoina  
eni ohointza itsusi  
nahiago nuen goiz huntan ere  
ez banu bate ikusi.

*J. Arzallus:*

Ez nuen uste honek gorroto  
zidanik neri hainbeste  
umeak egin eta salbatzen  
badut nahiko buruhauste  
ni etxerako hain lagun txarra  
nauzunik ez zazu uste  
katurikan ez bada etxean

xaguek jango zaituzte.

*E. Alkhat:*

Estakuruak merke dauzka ta  
beti alai aurpegia  
nola sinetsi katuenganik  
entzun daiteken egia  
sortzetik eta izatez maltzur  
buruz ez dago argia  
xagu bat baino nahiago du ba  
nausiaren haragia.

*J. Arzallus:*

Honek esan dun arrazoi hori  
segidan nahi dut ukatu  
bere etxean nik horren maltzur  
ez dut sekula jokatu  
haragi denak gordeta dauzka  
ez txakur eta ez katu  
honek jateitun txuleta hoiek  
ez ditut inoiz probatu.

*E. Alkhat:*

Gezurra berriz erraiten baina  
goxoa da entzuteko  
gatu bat nola joka daiteken  
ez da bate harritzeko  
bost umekila hortxe da ama  
orain neri bekoz beko  
bost umekila salduko dut hau  
arra baten erosteko.

*J. Arzallus:*

Bost ume egin eta denak hil  
marka denak ditu hautsi  
berriz umeak eginak ditut  
ta ez ditu nahi hemen utzi  
emea saldu arra ekartzetik  
ez du inola merezi  
emeen bila xaguk utzita  
joango bait zaizu ihesi.

### **M. A. "XALBADOR II" - FERMIN MIHURA**

*Gaia:* Biok errepidean barna zoazte. Zu Xalbador, zure artaldearekin bidea oso osorik hartzen duzula bazoaz mantso mantso. Zu Mihura, turista bat zara eta otomobilean zoaz itsas bazterrera. Artaldeak traba egiten dizu eta tuuta jotzen hasten zara.

Hiruna bertso zortziko nagusian Xalbador hasita.

*M. Xalbador:*

Kanpoko jendek lekukoekin  
gaur eman digute pena  
ez zait gustatu ez gizatasun  
eskasa lagun hunena  
ez dakit nork duen igorria  
edo nundik zaukon jina  
baina behar du jakin bidea  
hemen dugula denena.

*F. Mihura:*

Bide partean beraz nik ere

dut segurki hor hartzeko  
eta ardiak iduriz traban  
otoakin pasatzeko  
baina artzaina motiborik ez  
duzu hortan kexatzeko  
nere tutua ongi badator  
berdin zuri laguntzeko.

*M. Xalbador:*

Atzerritikan jin da nunbaitik  
gizon kixkil hau honuntza  
eta erranen du trankil orai:  
"egin nahi dugu laguntza".  
Hori ote da Paris aldean  
hartua duzun hezkuntza  
zu bezalakok ez dute hemen  
errezten gure artzantza.

*F. Mihura:*

Artzain horiek beti berdina  
denetan beren urratsa  
bertzeak gero ezin soporta  
eta mehatxuz solasa  
zure partez nik bide honetan  
kopeta dut hola altxa  
bidean ez da nihoiz komeni  
mendian daukazun martxa.

*M. Xalbador:*

Bidean ere erabil daike  
naski ene ardi meta  
eta zuk zer nahi duzu manatu  
nunbaitik huna jin eta  
harritu gabe zaude bada zu  
beltzatu ene kopeta  
hemen gu gira lekukoak ta  
gaitzazu zuk errespetatu.

*F. Mihura:*

Hauk behar ttugu errespetatu  
beti doala beretik  
eta ikusi nahi nuke nik gaur  
zerbait itsaso ertzetik  
berriketak hor uzkitzu eta  
kendu zaite aitzinetik  
bertzela berdin pasa nindaik  
zure ardien gainetik.

## ZORTZIKO TXIKIAN HIRUNA BERTSO

### J. ARZALLUS - M. A. "XALBADOR II"

*Gaia:* Zu Arzallus neska zara, zu Xalbador mutila. Inauterietan elkarrekin egon zintaten gostura, orai maskak kendu eta elgar ikusi duzue lehen aldikoz.  
Hiruna bertso zortziko txikian Arzallus hasita.

*J. Arzallus:*

Maskarekin negon  
polit eta legun  
elkarrekin ibili

gera biok egun  
nahiz ta lehendik ez ginan  
elkarren ezagun  
orain esan zaidazu  
zerbait maite nauzun.

*M. Xalbador:*

Hau ez zitzaitan eni  
gertatu oraino  
izarrik ez dut kusten  
baina zerbait laino  
ez da gertatu hori  
nehoiz egundaino  
maska politago zen  
aurpegia baino.

*J. Arzallus:*

Gertatu zen guk biok  
dantzatzen hastea  
orain dantza lotua  
ta gero askea  
ikusiz erabaki  
badu nik uztea  
nahi duzunean joan  
badaukat bestea.

*M. Xalbador:*

Inauterian izan  
zen bai gure besta  
geroztik hemen nabil  
erresta erresta  
zure maitatzera gaur  
ez naiteke presta  
edo bertzenaz berriz  
jantzi zure maska.

*J. Arzallus:*

Pozik ibilia zan  
hau hortxe nerekin  
baina beti ezin segi  
nere maskarekin  
itxusia naizela  
esanez du ekin  
hor konpon dedila ba  
bere ardiekin.

*M. Xalbador*

Orai ikusia dut  
orduko laguna  
eta bere mintzoa  
garbikj entzuna  
hara zer pentsamentu  
jina zautan huna  
hunekin dela ene  
zinez garizuma.

## **E. ALKHAT - F. MIHURA**

*Gaia:* Zu Alkhat, baserri batetako nagusia zara eta zu Mihura, auzoko baserriko nagusia. Zu Alkhat, gaur goizean zure barrokira joan zarenean Mihura aurkitu duzu zure behi onenaren jeizten ari.

Hiruna bertso zortziko txikian Alkhat hasita.

*E. Alkhat:*

Biak nagusi gira  
ez da gauza txarra  
baina nere auzoa  
goizean lapurra  
behi bat jeizten haiz  
eman daut nigarra  
zer behidekin bait du ba  
gizendu beharra.

*F. Mihura:*

Lapurtzako pasatu  
nauzula horrela  
ahal ta zintzoki hemen  
nengoen bestela  
jeizten hasia ez naiz  
egonen gibela  
entzuna nuen zu hor  
eria zinela.

*E. Alkhat:*

Ez da auzo makurra  
ez du ainitz pisu  
emanen dut esnea  
ta berdin bi musu  
nagusi izena du  
baina hortan kasu  
nausi mehea eta  
behi denak antzu.

*F. Mihura:*

Goxoa ez daukazu  
neretzat behako  
ez da egia zuek  
ez sinets holako  
egia da bai  
naizela be flako  
jeizten ari nintzen ta  
esnea zuetako.

*E. Alkhat:*

Zerbeit aitzazu otoi  
ene erranetik  
debekatuko zaitut  
behien jeiztetik  
bakotxa bere etxen  
bakotxak beretik  
ohoinak ez dira ba  
jiten urrunetik.

*F. Mihura:*

Ohointzat pasatua  
hauxe da afera  
alta baliatzeko  
zeraukat aukera  
borondate onakin  
jin zure etxera  
bertzean jin zaitezen  
nere laguntzera.

## LAU OINAK EMANDA

*Arantza, zalantza, esperantza eta latza.*

*J. Arzallus:*

Nere ihesaldia  
bait da oso latza  
hamalau urte dauzkat  
barnean arantza  
noiz itzuliko naizen  
milaka zalantza  
baina noizbait joateko  
badut esperantza.

*Nigana, lana, plana eta bana.*

*M. Xalbador.*

Beti zer nahi lan da  
etortzen nigana  
baina gaur egina dut  
ene gisan plana  
aisa egingo dugu  
sarri ene lana  
jeizten badautazue  
denek ardi bana.

## PUNTUA EMANDA

*B. Soule:*

Burua hotza eta  
mingaina beroa

*M. Xalbador:*

Zerbaiten errateko  
banuke gogoa  
gaur hasi txapelketa  
hau aitzina doa  
gora euskara eta  
gora Naparroa.

## GARTZELAKO LANA

Gartzelan bi ariketa ziren egin beharrekoak:

1. Azken puntua (zortziko nagusian):

**"Damugarri da gauza horretaz  
nik isuri izerdia".**

2. Gaia (neurri eta doinu librean):

Etxeko sutondoan zaude suari begira: zer datorkizu burura?

*E. Alkhat:*

Zonbeit aldiz zaut iluntzen eni  
bihotza eta begia  
bozken denboran errez nahasten  
gezurra eta egia  
denek irria merke daukate  
eta alai aurpegia  
**damugarri da gauza horretaz  
nik isuri izerdia.**

*E. Alkhat:*

Gaua maite dut jada errana  
ta zuek denek entzuna  
errana nuen horrek emaiten  
derautala osasuna  
sua neretzat betidanikan  
bihotzaren ontasuna  
orai zuhauri erran behar dut  
gaur arte ez dakizuna  
noiz duzu bada zuk argituko  
munduko iluntasuna.

Ilundurak ta dizdirak ere  
bait ditugu ikusiak  
elgarren auzo gauza politak  
eta berdin itxusiak  
gogoarazten dautazu sua  
zer nolako gutziak  
baina zurekin ezar nezazke  
gauza batzu bereziak  
noiz dituzu ba erreko zuhaurk  
gaiztakerizko guziak.

Berotzailea eta polita  
zaude supazter maitea  
zure ondoan amets goxoez  
burua daukat betea  
nahiago nuke zu bezelaxe  
argitasun izaitea  
baina anitzek iluntasuna  
kartzela eta katea  
su maitea zuk denei eskeini  
behar den libertatea.

*J. Arzallus:*

Langile denak estu gabiltza  
esan nahi nuke egia  
lana eginda ondorioa  
ez bait da gauza garbia  
lanean daramat nik bizia  
ta alperrikan erdia  
**damugarri da gauza horretaz  
nik isuri izerdia.**

*J. Arzallus:*

Denok dakigu sua guztion  
babes eder bat degula  
suarik gabe hotzean gaizki  
liteke gizon ahula  
suari inoiz guk ezin egin  
mespretxua edo burla  
zuri begira egin dezazket  
orain hainbeste karkula  
gizon basati etxe gabeak  
zuk berotu dituzula.

Berorik gabe gizonak inoiz  
ez gara izan osoak  
berotzen ditu haur eta zaharrak

berdin berdin gurasoak  
zuri begira dizdiraz dauzkat  
bi begietako soak  
zuri begira kantatzen ditut  
bihotz bihotzez bertsoak  
zuk salbatzen gaituzu gaur eta  
berdin gure arbasoak

Zuri begira dauzkat begiak  
goxatzen duzu arnasa  
zuri begira egiten dute  
gure haur denek jolasa  
zurekin ditut negu hotzean  
momentu goxoak pasa  
baina modatik nola zeran zu  
egurraren sua pasa  
aurrerapenak zure lekuan  
jarria bait digu gasa.

*M. Xalbador:*

Anai arrebak erran gogo dut  
orain egia garbia  
balio gabe gelditu zauku  
behia eta ardia  
soberakiri da hala gostarik  
guk bildu esne erdia  
**damugarri da gauza horretaz  
nik isuri izerdia.**

*M. Xalbador:*

Hautsaren betik goizean  
atera ia dut hazia  
gero sua piztu da ta  
azkartu zaio bizia  
sua zoin goxo den nehurrian  
gauza ezin sinetsia  
berotzen eta goxatzen duzu  
zuk familia guzia.

Leku xumekoa naiz ni  
hau da gauza ezaguna  
baina xumea izanta  
ere ez naiz hain iluna  
baina sua zu ez zaitut izan  
nahi enegatik urruna  
hamarretarik zortzitan zaitut  
nik neguko ontasuna.

Xahartzen ari naiz eta  
ene denbora badoa  
suari zoin amultsuki  
egiten diotan soa  
berak eskaintzen daut bai gogotik  
bere bazterrain altzoa  
hor irakurtu nahi dut artetan  
nik Odolaren Mintzoa.

# LUZAIDE

1992ko Martxoaren 22

Luzaideko saioa bertako udaletxeko aretoan ospatu zen 1992ko martxoak 22an. Bertan, Txapelketan barru, parte hartu zutenak hauek izan ziren: Fermin Mihura, Jose Migel Argiñarena, Urko Atxutegi, Salbador Madariaga, Eusebio Fagoaga, Txomin Ezponda eta Bautista Perurena. Zortzikotea osatu asmoz eta txapelketaz kanpo Ernest Alkhatek parte hartu zuen Joanes Arrosagarai ordezkatzuz.

Erran behar da harrera ezin hobea egin zietela bertsolariei bertako entzuleek eta saioari hasera emateko Ifarraldeko bertsolari gaztetxoek agur bana kantatu zuten.

## AGURRAK

*E. Fagoaga:*

Ongi etorri entzule maite  
larri nago nerbiotan  
izanik ere hainbeste gauza  
pasatzen dina gogotan  
une batean egondua naiz  
etxera joatekotan  
hala ta guztiz hasi behar det  
zuen aurrean bertsotan  
gure failoak zuen txaloak  
beteko ditun asmotan. (bis)

*E. Alkhat:*

Lana hasterat noa berriro  
agur egiteko asmoz  
Arnegi eta Luzaide maite  
ditut amodio beroz  
gaur iguzkia txarra dela ta  
hotza galdu duelakoz  
Arrosagarai ordainduko dut  
egun bigarren aldikoz. (bis)

## ZORTZIKO NAGUSIAN HIRUNA BETSO:

### TXOMIN EZPONDA - URKO ATXUTEGI

*Gaia:* Zu Ezponda jendarmea zira eta zu Atxutegi kontrabandista. Heldu den urtean, 1993an mugak kendu behar dituztela eta ez ote zarete lanik gabe geldituko. Kontatu zein diren zuen planak.  
Hiruna bertso zortziko haundian Ezponda hasita.

*Tx. Ezponda:*

Hoinbeste urte gostura pasa  
hau da memento tristea  
beti penetan izan ditake  
leku onaren uztea  
neurri berean gelditzen gira  
orai zahar ta gaztea  
heldu den urte hortikan gora  
izain da lanean hastera.

*U. Atxutegi:*

Hainbat urtean ibili gera  
erdi etsai erdi lagun  
langabezian gaude gu orain  
zerbait egin behar egun  
horrelakorik ez da pasatzen

ez mundu honetan inun  
zerbait pentsatzen hastea ere  
txar ez den nola dakigun.

*Tx. Ezponda:*

Orai artean egoten nintzan  
laguna muga horretan  
eta zu ere pasatzen zinen  
hortxe gogo ederretan  
muga horiek kentzen dira ta  
ni hasten naiz pentsaketan  
lehen mugan bertan baldin banintzan  
gero izain naiz denetan.

*U. Atxutegi:*

Egoera hau ez da ederra  
ta ezin gintezke poztu  
lanikan ere ez daukagu ta  
hortan ez da hainbat gustu  
Txomin ta biok egingo degu  
orain seituan apostu  
zeren polizian badago bai  
biontzat haina lanpostu.

*Tx. Ezponda:*

Gu biondako lana badela  
hori ezin dut sinetsi  
orain arteko bozkarioak  
orain airetan doazi  
zu kontrabando lanetik orai  
ezin bai zintazke bizi  
neri galtzak hor ordaintzen ttuzte  
zuk beharko duzu erosi.

*U. Atxutegi:*

Biok polizi egingo gera  
ez du ulertu oraindik  
plan hau ederki joango dela  
nik orain ederki dakit  
ez dut pasako beldurrik eta  
ez dut pasako lotsarik  
polizi eta lapur artean  
ez bait da diferentzirik.

## **ERNEST ALKHAT - BAUTISTA PERURENA**

*Gaia:* Gaur zuk Alkhat, etxera sartu zarenean Perurena, zure aita, harrapatu duzu eltzetsutik dirua ateratzen. Hiruna bertso zortziko haundian Alkhat hasita.

*E. Alkhat:*

Aita maitea zuk lehen duzu  
izerdi asko isuri  
zu lehen gazte ni berriz orai  
eta badaukat furfuri  
ene eltzetik dirua hartzen  
egun lapur bat iduri  
barkatzen dautzut nik ere lehen  
lapurtu bait dautzut zuri.

*B. Perurena:*

Eskerrik asko nere semea

egokira hau jantzia  
lehendikan nuan semetxo ona  
izango nuan etxia  
beti maite det ez det eduki  
bazterturikan utzia  
kontu hoietan nere semetxo  
biona degu eltzia.

*E. Alkhat:*

Biena dela eltzetxo hori  
ezin dukegu ukatu  
gaur zu nitaz ta ni zutaz lehen  
ginen elgarren behartu.  
halarik ere aita maitea  
behar dautzut gaur aitortu  
ez delarikan eskatze hori  
ez dela inoiz bekatu.

*B. Perurena:*

Estimatzen det nere semea  
arrazoi hau ematea  
haserre hasiko ote zinan  
halaxe neukan ustea  
odol berekok izango gera  
nere semetxo gaztea  
eltzea azkar hustuko degu  
badago zeinek betea.

*E. Alkhat:*

Aditu aita emango dizut  
egun eskasten zaizuna.  
baina horrela ikusi eta  
lapur baten oihartzuna  
berdin haundia zurea eta  
semearen ontasuna  
aita semeak izanagatik  
gaur egin anaitasuna.

*E. Perurena:*

Nere semea jarri digute  
eltze itxuaren plana  
gehiena hutsa egongo da ta  
aita seme hoi en lana  
bihotzetikan esaten dizut  
entzun zazu zuk esana  
ni egun gutxikua naiz eta  
zuretzat geldiuko dana.

## **ZORTZIKO TXIKIAN HIRUNA BERTSO**

### **J.M. ARGIÑARENA - TX EZPONDA**

*Gaia:* Zu Argiñarena, banda batetako zuzendaria zara. Zuk Ezponda, tronpeta jotzen duzu banda horretan eta gainera, zuzendaria bizi den etxe berean bizi zara. Ohitura berezi bat baduzu: egunero goizeko seietan hasten zera tronpeta jotzen.

Hiruna bertso zortziko txikian Argiñarena hasita.

*J.M. Argiñarena:*

Hitzegin behar diagu  
gaur garbi Ezponda

haserretzea baino  
pake hontan on da  
goizeko seietako  
dabil dinbi danba  
entrenatzeko ordutan  
lotan egoten da.

*Tx Ezponda:*

Nere gidari on hau  
gaur ere hasi da  
eta eman behar dut  
berari segida  
ni tronpeta jotzea  
zer gauza polita  
iratzartzeko hobe da  
ezinta tirrinta.

*J.M Argiñarena:*

Aspaldiko urteetan  
gera gu biok lagun  
zenbat entrenamentu  
eginak ditugun  
eguna argitzeko  
nahiz eta hau jardun  
artista ona degunik  
ez du halare ezagun.

*Tx. Ezponda:*

Tronpeta soinu hori  
al zaizu itsusi  
gaur ere sei ordutan  
jotzen nauzu hasi  
nere musikak ttuen  
doinuak doazi  
gero jotzeko ta nik  
nunbait behar ikasi.

*J.M. Argiñarena:*

Behar ez danean bizkor  
bestetan nagiak  
artista hauek ditugu  
hor errezegiak  
kejak ekartzen dizkit  
etxeko jendiak  
bandatik bota behar ditut  
tronpeta ta biak.

*Tx. Ezponda:*

*Ni* eta tronpet horrek  
balio diruak  
maiz musikari artistak  
dirade txoruak  
zuk jasan behar ttuzu  
nere inguruak  
askoz txarrago dira  
gaur zure orruak.

## **F. MIHURA - E. ALKHAT**

*Gaia:* Zu Mihura sakristaua zera eta zu Alkhat monagiloa edo beretterra. Sakristian ardoa falta da.

Hiruna bertso zortziko txikian Mihura hasita.

- F. Mihura:* Gauzak nola diren ba  
batzutan izaten  
arinoa faltatua  
nor ari zan zeken  
nik erranen dautzut hau  
lehen eta azken  
ura baizikan ez dut  
sekulan edaten.
- E. Alkhat:* Nekez trinka daiteke  
gu bion hauzia  
eliz gizonak gira  
jaunari grazia  
sakristau hau naski da  
gizon berezia  
ni ttipi naiz ta ez naiz  
edaten hasia
- F. Mihura:* Halare nunbaitikan  
hor dator jestua  
edateko 're berdin  
zintaizke prestua  
batzutan zu ikusten  
zaitut nik listua  
bart arratsean hortxe  
argia piztua.
- E. Alkhat:* Ikusi baduzu zuk  
argia piztua  
ez pentsa nere zela  
baldako jestua  
zure solasak egun  
nago harritua  
ez otoi konfesatu  
bertzen bekatua.
- F. Mihura:* Hortxe ibiltzen zira  
uda eta negu  
berotzeko tragoa  
ez duzu enegu  
eta segurki 're hor  
zuk egin enplegu  
apeza ez bada ez  
ebasle zaitugu.
- E. Alkhat:* Apeza ebasletzat  
duzu akusatzen  
egitate txar hori  
nik ez dut onartzen  
ez dakit nork ta nola  
arinoa den galtzen  
apezak ere hori  
ez du astiatzen.

## LAU OINAK

*Adio, balio, dio, serio.*

*J.M. Argiñarena:*

Argiñarenak orain  
hauxe barruz dio  
hitz egin nahi nuke  
gaur guztiz serio  
txapelketari egin  
nahi diot gaur adio  
trantze hauetarako  
ez bait dut balio

*Batean, atean, eskean, bakean.*

*Tx. Ezponda:*

Orain arte egonak  
gu beti eskean  
gure ustez gabiltza  
orotan bakean  
euskaldunak ez gaiten  
gelditu atean  
salbatu nahi badegu  
ein denak batean.

*Mundua, heldua, galdua, modua.*

*E. Fagoaga:*

Horrelaxekua da  
gabiltzan modua  
lanik gabe gaztea  
ta berdin heldua  
errespetoa ere  
nahikoa galdua  
horrelaxekua da  
daukagun mundua.

## PUNTUA EMANDA

*B. Soule:*

Iruñerako tren  
non ote da hartzen?

*Tx. Ezponda:*

nihaur ere hasia  
naiz hemen pentsatzen  
nere buruak ere  
ez bait nau laguntzen  
epai mahaiekoari  
diotet galdetzen.

*B. Soule:*

Zuhaitzaren kaskoan  
txori bat kantari

*B. Perurena:*

zu baino lehenagotik  
ikusi det hori  
nonbait tontotzat jota  
eduki nau neri  
edade hoitakua  
da gezurra dirudi.

## GARTZELAKO LANA

Azken puntua emanda honela kantatu zuen Tx. Ezpondak:

*Tx. Ezponda:*

Egun gehienez egiten dugu  
zinkurin eta nigarra  
batek besteaz ezin jasanez  
orain dagon zoritxarra  
nora demontre pasatua da  
fedez zaharraren indarra  
**lanaz gainera pertsonak badu  
beste zerbaiten beharra.**

## GARTZELAKO GAIA

Duela berrogeitamar urte joan zinan Ameriketara. Gaur itzuli zara etxera eta zure etxea hutsik dago eta inguruko soroak sasiz beterik.

Hiruna bertso doinu eta neurri librean.

*Tx. Ezponda:*

Mende erdi bat pasatu zait ta  
hau da nere oinazea  
nik uste nuen urrun joan eta  
zeru gaina ukitzea  
berriz atzerat itzuli naiz ta  
ikusia dut etxea  
penagarri da hola ikusiz  
nun dauka hunek sartzea  
nun ote dago goxotasuna,  
nun da nere ohatzea?

Denbora hori pasatu eta  
oraintxe ditut kontuak  
aldameneko alor hoietan  
lapar batzuk indartuak  
etxe maitea bakartatean  
denak dituzu hartuak  
muruak ere lurreratari  
ziloa du teilatuak  
ta orain zeinek barka lezazke  
nik zuri egin bekatuak.

Ongi badakit zutarik urrun  
gehegi egon nizala  
utzi zintudan konturaturik  
oso xumea zinala  
oraino ere tipia daukat  
nik diruaren ahala  
halarik ere hemen lanean  
hasiko naiz berehala  
etxe maitea nahi zaitut eman  
lehenago zinden bezala.

*J.M. Arginarena:*

Berrogeitamar urte baditut  
iadanik nik beterik  
Amerikara joan nintzela  
lanbideak beharturik  
orain itzuli naiz sorterrira  
eta nahikoa zaharturik  
sortetxea hutsa ta ez dago hor  
sasi ta larra besterik  
ez nun espero nere herria  
era hontan ikusterik (bis).

Ameriketan berrogei eta  
hamar bat urte pasia  
nere sasoi onenarekin  
bizitza guzia ia  
orain etxera itzuli eta  
hau da nere tristezia  
etxe zahar hori orain hutsikan  
lehen hainbat ume hazia  
bakardadea nagusi eta  
nunhai larra ta sasia(bis)

Ez nuen uste nere sorterri  
hau ikusterik galtzera  
baina horrela aurkitu det gaur  
zuhaitz zaharraren antzera  
hainbeste burutazio datoz  
nere bihotzaren ertzera  
penaren kargak honi begira  
jarri bait dit gaur lertzera  
Amerikara itzuli nahi det  
berriz penak arintzera (bis).

*F. Mihura:*

Amerikarat joan nintzen bai  
sos egitea espero  
Euskal Herrian at al ikusten  
han bildu nahi zonbeit grado  
denbora joan eta han bertan  
ez nintzala hainbat fido  
adina etorri gero  
orai ez naiz hainbat bero (bis)  
nere gisarat baserri zaharra  
ez dago gaurkoan ondo  
pentsatzeko zen gizonik gabe  
ongi ez zela izango (bis)

Amerikarat joan nintzan bai  
ez nuen bildu gradua  
sosa're hainbat ez nuen egin  
gaur ni hunarat heldua  
zoin xorua guk batzutan dugun  
izaiten hor helburua  
xorua bait da mundua  
zonbatez daukat galdua (bis)  
zorionketa harat joana  
egin nahizik dirua

bihotza dagon lekuan dago  
hobekienik burua (bis).

Aspaldi du bai leku hartara  
nintzala hola abia  
eta damua gaurkoan daukat  
norat joan da familia  
ni bezelaxe izan daitaie  
bertze askoren aldia  
eta gaur naiz etorria  
daukat hainbat errabia (bis)  
adinagatik gostura bota  
behar dut nik izerdia  
laparrak kendu eta loratu  
dadin piskat baserria (bis).

## SUNBILLAKO KANPORAKETA

1992-III-29

Euli Beltza elkartean bazkari eder bat egin ondoren, arratseko bortzak aldera hasera eman zitzaion aurtengo hirugarren eta azken kanporaketa izanen zenari. Zortzi bertsolari aritu ziren kantuan Patxi Larretxea aranaztarra gaijartzaile lanetan zutela.

Erran behar da bai ta ere lehen aldikoz Nafarroako Txapelketan emakume batek, Eztitxu Arozena gazteak, parte hartu zuela. Aldi berean hamabortz urteko Xabier Silveirak kantatu zuen eta bi gazteak finalerako saiorako aukeratuak izan ziren.

Herriko pilotalekuan ospatu zen kanporaketa hau 600 bat entzulek jarraitu zuten; baina aipatzekoa da entzule hoiengan aurkitzen zirela gazteen animatzaile eta jarraitzaileak pankarta eta guzti.

### AGURRAK

*B. Madariaga:*

Nere aurrean ikusitzen det  
hau da bikote gaztea  
eta neroni denetan zaharren  
hauxen da izen tristea  
aurtenguakin pentsatutzen det  
beti betiko uztea  
igualian nahio det nik gaur  
Estitxuk irabaztea (bis).

*J.F. Argiñarena:*

Arratsaldeon denori eman  
eta hasiko naizela  
eta golpetik koadrila honi  
zuzenduko natzaielda  
gaur saio on bat egin asmotan  
nator guztiok bezela  
ta saio txarra izaten bada  
izurratu ditezela (bis).

*J.L. "Laka":*

Beti gertu naiz Zubikoaren  
Sorterria agurtzeko  
pozaren pozez jestu eder hau

agerian egiteko  
zortzikote hau agertu gira  
beraz hemen kantatzeko  
aitor dezagun egonen gira  
Larretxearen meneko  
ta esperantza pittin batekin  
Iruñera joaiteko (bis).

*J.M. Fagoaga:*

Arratsaldeon jarraitzaileak  
berriz hemen naukazute  
lehengo urteko lao finalistak  
eta aurtengo bi gazte  
Bautistak ere aurre horretan  
askotan hartu duk parte  
ni berriz beti atzeko puntan  
bada nahikoa kontraste  
saiatuko naiz behintzat egiten  
zuek merezi hainbeste (bis).

## ZORTZIKO HAUNDIAN HIRUNA BERTSO

### E. AROZENA - X SILVEIRA

*Gaia:* Zu, Estitxu, artzai bat zara eta artaldetik ardi batzuk falta direlako artea, zepoa, paratu duzu otsoa edo delakoa harrapatzeko. Biharramon goizean, Silveira, zure lagunik onena harrapatu duzu artean preso. Estitxu hasita hiruna bertso zortziko nagusian.

*E. Arozena:*

Ardi ugari falta ziren ta  
tranpa bat nuen paratu  
gaur goizean etorri naiz eta  
nere lagun hau topatu  
mesedez errukitzeko ez eska  
ez holakorik eskatu  
berriro ere lagun kontutan  
usteak ustel gertatu (bis).

*X. Silveira:*

Orain artean Estitxu artzai  
lagun onak izanikan  
berrogei urte badauzkat eta  
lanik ez dut oraindik  
dirurik ez dut batere eta  
ez dut ere zer janikan  
ez nuen ezer egitekorik  
ez zen irtenbiderikan (bis).

*E. Arozena:*

Ene Silveira ez zazu jarri  
horrelako aitzakikan  
ez nuen uste nere laguna  
hemen harrapatzerikan  
baina gauza bat esango dut nik  
eta ez dut besterikan  
zu ikusita ezin da esan  
gose pasatzen zunikan (bis).

X. *Silveira*:

Ikusirikan denbora askoz  
lagun haundiak garela  
tranpa honetan eroririkan  
mintzatu nahi dut horrela  
zure ardiak behar nituen  
zer egingo nun bestela  
hiru arkuma horiek janda  
nago nagoen bezela (bis).

E. *Arozena*:

Zuk eman dituzun arrazoiak  
nik ez ditut ulertuko  
eta lapur haundia zeranik  
ezigo dezu egin uko  
hau iruzurti haundi bat dela  
Sunbilla dugu lekuko  
gaurtik aurrera ni ez naiz inoiz  
inorrekin fidatuko (bis).

X. *Silveira*:

Zeruko Jaunak emango dizu  
hainbeste bedeinkazio  
nahiz eta gaurtik aurrera ere  
zu inorekin ere ez fio  
zu laguna izatea ere  
ez dut askorik balio  
beste arkuma bat hartu eta  
hor konpon eta adio.

### M. AROZENA - J.M. FAGOAGA

*Gaia*: Zu, Manolo, arrantzale trebea zara eta gaur Jose Mari, zure semea eraman duzu lehenengo aldiz arrantzan piska bat erakusteko. Zuk Manolo, ez duzu amuarrairik harrapatu eta zuk, Jose Mari, sei. Manolo hasita, hiruna bertso zortziko nagusian.

M. *Arozena*:

Oh seme maite errekan gaude  
bi arrantzalen tankeran  
erakustea nahi nizun zuri  
kainakin nolakok geran  
ikusten denez hasiera ona  
izan dezu zuk aukeran  
jakin ezazu izaten dala  
suertean araberan.

J.M. *Fagoaga*:

Arrantza ez zait inoiz gustatu  
baina aitatxok engaina  
hartu diot bai joan da laister  
nik berak zedukan kaina  
ta hartu diot lasai lasai  
hara ta hona tamaina  
gaur behintzat hemen nik lortu bait det  
afizioen ordaina.

M. *Arozena*:

Zuk egin dezun azaina hori  
onerako izan bedi  
lehenengo eguna bakarrik dezu  
eta gaur ez zaitetz geldi  
aitak bestela ateratzen du

jan eske hainbat izerdi  
bitik batek hor zerbait lortu du  
eta hala ere gaitzerdi.

*J.M. Fagoaga:*

Lehen pentsatzen nun ni ez nintzala  
arrantzarako egina  
bainan gaurkoan pentsatu det nik  
betetzea aitaren mina  
nahiago nuke aitatxo hola  
bazegon ongi gordina  
hamabiren bat hartuko nitun  
zu etorri ez bazina.

*M. Arozena:*

Etorri gera aprobetxatuz  
zure okasio ona  
iruritzen zait egin dezula  
gaur zuk ekintza sakona  
ez pentsa gero suerte hori  
izaten denik askona  
aita pozikan aurkitzen da ta  
hartu nere zoriona.

*J.M. Fagoaga:*

Hola esanez afizioa ere  
sartuko didazu sarri  
aita hor dago gau eta egun  
amorraiaeren egarri  
hori ez zait ez gustatzen bainan  
gaur ez naiz ibili larri  
aitatxo amakin gelditu ta  
ni joango naiz bakarri.

## ZORTZIKO TXIKIAN HIRUNA BERTSO

### J.F. ARGIÑARENA - E. AROZENA

*Gaia:* Zu, Argiñarena, aita zara, eta gaur Estitxu, zure alaba, lehengo egunean oparitu zenizkion prismatikoekin topatu duzu ondoko etxeke bizilagunei begira.  
Hiruna bertso zortziko txikian Jose Fermin hasita.

*J.F. Argiñarena:*

Prismatiko politak  
oparitu aurten  
alabak inoiz ere  
merezi zenduten  
txintxo portatutzeko  
ere erakusten  
auzoan zuk Estitxu  
zer dezu ikusten? (bis).

*E. Arozena:*

Opariak fruitua  
orain izan dezan  
nik argibiderikak  
ezin dizut eman  
alaba txintxo asko  
nola portatu dan  
oso polita da ta

ezin dizut esan (bis).

*J.F. Argiñarena:*

Alaba hauek dira  
matraka xamarrak  
hamazazpi urtetan  
hain gora indarrak  
auzoan badauzkagu  
bi gazte edarrak  
hortik etortzen dira  
tentazio txarrak (bis).

*E. Arozena:*

Tentazio txar hoiek  
hortik heldu omen  
baina gauza txarrikan  
ez daukagu hemen  
ez dakizu aitatxo  
ta jakin lehen bait lehen  
gure bizilaguna  
ze ona dagoen (bis).

*J.F. Argiñarena:*

Makila hautsiarekin  
ez sartu tartera  
zer pentsatutzen dedan  
noa esatera  
prismatiko hoiekin  
hainbat sufrizera  
hainbat ez begiratu  
ta joan bertara (bis).

*E. Arozena:*

Prismatiko on batzuk  
alabai opari  
geroztik ez da izan  
holako ugari  
aita ere ari da  
beira leihoari  
eta ikusten du honek  
mutilan amari.

## **B. ELIZAGOIEN- M. AROZENA**

*Gaia:* Zuek senar emazteak zarete, eta lau seme alaba izanik, bertzerik ez zenuten izan nahi. Zu, Bittor, emaztea, gaur medikura joan zarenean bixkiak izan behar dituzula erran dizu. Manolo senarraren aurrean aurkitzen zara orain. Hiruna bertso zortziko txikian Bittor hasita.

*B. Elizagoien:*

Zaila izaten bait da  
gaur ongi goxatzen  
holakorikan ez zan  
gurekin pentsatzen  
baina haurtxo hoiekin  
ni ez naiz kezkatzen  
bibiro hoiek sano  
etorri daitezen (bis).

*M. Arozena:*

Bibiroi kontuakin  
zertako hasia

nere ekintza ez da  
horreinen nahasia  
bizilagun batekin  
zaitut ikusia  
hari eman beharko diot  
nik kulpa guzia (bis).

*B. Elizagoien:*

Zeloskor zabilta ta  
zu nahikoa arin  
langintza txarrikan nik  
ez bait dut hor egin  
fidatu zaitez senar  
maitea nerekin  
ezin bait da jolastu  
paisen globoekin (bis).

*M. Arozena:*

Zu ez zerade hemen  
egiaren jabe  
eta esango dizut  
suabe suabe  
abortatzea ere  
kasik zendun hobe  
basektomia egin nun  
zu enteratu gabe (bis).

*B. Elizagoien:*

Holako konturikan  
ez zazu kontatu  
eta bixki horiek  
bihotzez maitatu  
bien errua da ta  
hola da gertatu  
zeure umerik orain  
ez zazu ukatu (bis).

*M. Arozena:*

Gainera gezurretan  
oraindikan lasai  
urrutitik hartzen det  
auzoaren usai  
nere haurrak dirala  
dio honek jai jai  
besteen umerikan  
etxean ez det nahi (bis).

## **LAU OINAK**

*Atsegina, fina, ezina eta samina.*

*J.L. "Laka":*

Erdarakadak dira  
betitik samina  
bainan jendea laister  
aldatu ezina  
halare ikusten dut  
nik euskaldun fina  
harek ematen deraut  
beti atsegina.

*Fedea, berea, legea eta hobea.*

*B. Elizagoien:*

Bakoitzak egin behar  
oraingoz berea  
bainan ez det onartzen  
hemengo legea  
zeruan behintzat badet  
neronek fedea  
uste det gerokoa  
dugula hobea.

*Bat, bart, zuretzat eta behintzat.*

*M. Arozena:*

Jokoan hemen dago  
aurren txapela bat  
bihotzetikan argi  
etorri naiz behintzat  
amets bat egina det  
nahi ez dudala bart  
Estitxu txapel hori  
aurten da zuretzat.

#### **LEHEN PUNTUA**

*P. Larretxea:*

Pozikan ote zaude  
asteburuetan?

*E. Arozena:*

Besterik ez dut buruan  
momentu honetan  
gaztea gustora dabil  
beti're festetan  
hola jarraituko dugu  
urte luzeetan.

*P. Larretxea:*

Bertsolaritzan sartu  
zaigu zenbait neska

*X. Silveira:*

Aiton zaharrei emateko  
horrenbeste kezka  
txapeldun egingo dira  
zer nolako festa  
neska horiek baino  
hoberikan ez da.

#### **GARTZELAKO LANA**

Lehenbizi azken puntua eman zitzaien bertsolariei zortziko nagusian bertso bat osa zezaten:

**Kontuak kontu nekazariak  
Ere jan beharko dute.**

*E. Arozena:*

Baserritarrek herritarrori  
bizia egiten digute  
langile finak oso jatorrak

badira hainbeste birtute  
egun guzia lenean pasa  
hiru pezetaren truke  
**kontuak kontu nekazariak  
ere jan beharko dute.**

*B. Madariaga:*

Gaur egunean agintariak  
gizon okerrak ez ote  
gainera gero ta okerrago  
batere ez ditut maite  
egiten degun guzti guztia  
guri lapurtzen digute  
**kontuak kontu nekazariak  
ere jan beharko dute.**

*Gaia:* Izan dugun idortearen ondotik, orain hemen kantatzen ari zarela, bat batean urak atea hautsi frontoia hartu eta goiti heldu dela ikusi duzu.  
Hiru bertso doinu eta neurri librean.

*B. Elizagoien:*

Eguzki fina ikusten gendun  
aurtengo negu gorrian  
suak ugari gar gorrietan  
ikusten ziran mendian  
orain frontoia urez beteta  
gaude hain une larrian  
ura denentzat ona da bainan  
beti bere negurrian (bis).

Ura eskean ari ginan ta  
bagendun hainbat enpeino  
orain gehiegi egin digu ta  
denok bihotzian laino  
uran azpian dio doian gaude  
saturikan leporaino  
bainan hala're nahiago dut nik  
idortean erre baino (bis)

Mendiak idor belarrak idor  
ta larri nekazaria  
jaunari esker euri pixka bat  
orain bada eroria  
nahiz ta horretxek frontoi honetan  
egin digun aberia  
bihotz bihotzez ongi etorri  
udaberriko euria (bis).

*M. Arozena:*

Hainbat nahigabe Euskal Herriak  
badauka bere lekuan  
behin behar eta gaur aurkitzen naiz  
etorritako damuan  
ur ikaragarrik hortxe datoz  
badet egundoko suan  
hankak bustitzen hasi zaizkit ta  
nik ez dakit nora jua  
beste gauzikan ezin det egin

hasiko naiz errezuan (bis).

Nola liteke zergatikan zan  
gaur honera hurbiltzea  
eguraldiak bihotz erditik  
gaur sartu digu iltzea  
kanpoko trumoi eta tximista  
euria eta haizea  
denak hiltzea ez da komeni  
hori txarra da bai zea  
zaharrak gelditu umeak gora  
hobe bait da gu hiltzea (bis).

Ito zorian bihotza dardar  
dadukat nere barruan  
ikusten dedan saminarekin  
ezin kabitu larruan  
denak salbatu nahi ditut baina  
nik ezin ditut eruan  
gauza bakar bat esan nezake  
ni nagoen apuruan  
agur denori eta noiz bait'e  
bilduko gera zeruan (bis).

#### **AZKEN AGURRAK**

*J.L. "Laka":*

Zorionak garaileri  
Iruñera doazineri  
bi gazte hauen trebetasuna  
hemen zen ageri  
mila esker entzuleri  
ta halaber epaileri  
bertsularitza sustatzeari  
gero ere segi (bis).

*M. Arozena:*

Bertso munduan egun politikak  
izaten dira bizitzan  
gaur ni hemen bai nagola lasai  
lorea udaberrin gisan  
aurrera jarrai beharko degu  
esperantzaren baldintzan  
eta nahi nuke gazte hoiekin  
ahal bada laguna izan  
zaituko ditut udaberriko  
izotzak galdu ez ditzan (bis).

## **IRUÑEA GAIARREKO FINALA**

1992ko Apirilaren 5

Nafarroako bertsolarien XXI. txapelketako azken saioa Gaiarre antzokian mila ikusentzuleren aintzinean ospatu zen. Igande goizez giro aparta gauzatzen joan zen gazteen pankartzaz eta bertsozaleen txaloz. Azken urteetako usadioari berrikuntza nabarmena erantsi zitzaion saio honetan.

Zortzi bertsolariak orden honetan aritu ziran: Jose Migel Argiñarena, Estitxu Arozena, Txomin Ezponda, Manolo Arozena, Xabier Silveira, Bittor Elizagoien, Ernest Alkat eta Mixel Aire "Xalbador II". Zortziak Mikel Taberna eta Patxi Larretxea gaijartzaileen aginduetara aritu ziren bazkaltzeko tenore rarte.

Epai mahaiako lana hauek egin zuten: Mixel Itzaina, Mikel Bujanda, Jose Urroz, Aingeru Epaltza, Emile Larre eta Jean Pier Etxegoin. Puntuazioaren batuketa lanetan Pablo Jose Aristorena eta Kike Diez de Ultzurrun izan ziren.

## AGURRAK

*J.M. Argiñarena:*

Egun on eta ongi etorri  
haxe da hau panorama  
bertso entzulez beteta gaurkoz  
Gaiarre gehientsuena  
bertsoa eta zuen pozgarri  
hustu nahi nuke barrena  
kezkan izpirik ez darakarkit  
ez kopa ta txapelana  
baizikan egin nahi nukena da  
zuen gustoko dan lana.

*E. Arozena:*

Antolatzaile batzu haserre  
omen daude gazteekin  
irradi eta egunkaririk  
behintzat hala dut nik jakin  
gaia eman ta denbora luzez  
pentsatutzeari ekin  
hoztu egiten dela giroa  
gure ekintza horrekin  
moskeatuta epai mahaikoek  
emandako puntuekin  
baina hala're gogor saiatu  
behar dugu elkarrekin  
gazteak gara pazientzia  
hartu zazute gurekin.

*Tx. Ezponda:*

Egun on eta ongi etorri  
zuer deneri lehenbizi  
Gaiarre hontan baino hobeki  
nun ote gintazke kausi  
zuen laguntza baldin badaukat  
nik hartzen dut konfientzi  
zortzi langile bagatoz hemen  
atzetik zazpi nagusi.

*M. Arozena:*

Hasarre nator saminez nago  
eta ez dut nahi eseri  
punturik gehien Arzallusek du  
ta ez da kantura ageri  
txapeldun orde Mendiburu da  
hor dago baina nahiko eri  
gure gurdi hau lehen baldar bazan  
badauka nahiko aberi  
zuen txaloak kontuak kontu  
eskeintze izkiet bieri

*X. Silveira:*

Goazen lagunak amets betean,  
Manolon txapela bila batera.  
Orain badakit ze antzokian  
dagoen altxorrik ederrena.  
Bertso mundua irla haundi bat da  
ta horrek poztan du ta nere barrua,  
bihotzean badut nik amets on ederrik  
ta ez da eguzki dizdiratsuagorik  
goazen ba aurki dezagun  
goazen, goazen, goazen, goazen, goazen.

*B. Elizagoien:*

Euskal Herriko hiriburura  
nator egunon esanez  
begiak triste bihotza ilun  
ez naiz senti zorionez  
Jesus Arzallus Iparraldean  
muga pasatu ezinez  
ta Mendiburu hemen daukagu  
eskasturik osasunez  
hainbat elbarri berriz ohean  
guri irratiz entzunez  
hainbat gudari berriz kartzelan  
zigor gogorrek jasanez  
hainbat gudari ihesi daude  
gordetu ezin eginez  
gaurko saio hau eskeni nahi dut  
hoiek guzien omenez.

*E. Alkat:*

Orai dagoke anai arrebak  
zuek denen agurtzea  
ez da zilegi gaur ene ustez  
tristuraren zabaltzea  
bi lore gazte dauzkagu aurten  
hartze dute xalotzea  
hoiek digute gaur edertuko  
Gaiarreko baratzea (bis).

*M. Xalbador*

Hoinbertze jende badirelarik  
dauzkatanak aurrez aurre  
egin bidea haundia zaut ta  
ez dezaket egin parre  
baina irrik ez badut ere  
ez naiz zuentzat hasarre  
eta lehengoa ere ez bait dut  
estimu eskasez erre  
gaur neretako bertze txapel bat  
ba ote dezu Gaiarre.

## ZORTZIKO NAGUSIAN HIRUNA BERTSO

### E. AROZENA - J.M. ARGIÑARENA

*Gaia:* Zu, Estitxu, baserriko paretan, argazki batean zauden aitona zaharra zara, orain dela ehun urte hila. Zu, Jose Migel, Estitxuren ilobaren iloba zara eta diru pixka bat ateratzeko, baserria saltzea erabaki duzu. Hiruna bertso zortziko haundian Estitxu hasita.

*E. Arozena:*

Gure diruak mundu honetan  
hainbeste garrantzi al du  
langabezia diru eskasa  
nola gaur zaigun ugald  
baina oraindik nere argazkia  
arren ez zazula galdu  
baserria saldu baina argazkia  
arren ez zazula saldu.

*J.M. Arginarena:*

Argazkirikan ezin dut gorde  
nik baserria salduta  
kontzientzia lasai nezake  
gauzak garbi azalduta  
aiton maitea zauden tokitik  
ez nazazula gorrota  
ez diru eta langabezian  
aspalditikan nago ta.

*E. Arozena:*

Beraz hau ere saldu beharrak  
eta zer erremedio  
haserre nago nere iloba  
maitea dela medio  
eta gauza bat esango dizut  
lasai ta oso serio  
nere argazkiak dirua baino  
askoz gehiago balio.

*J.M. Argiñarena:*

Gertaera astuna da gaur  
neri gertatu zaidana  
kontzientziarentzako ere  
hau da dadukaten zama  
baina aitona zure espirituz  
eta zure oroitzapena  
gaur neroni naiz aitonaentzat  
argazkirikan onena.

*E. Arozena:*

Nere iloba maitea dugu  
ederra bezain jatorra  
gure bukaera hau ez dedin  
izan hala're gogorra  
zure aitonan borondatea  
eder eta ona horra:  
ganbaran dago gaztetatikan  
nik gorde nuen altxorra.

*J.M. Argiñarena:*

Baserritxo hau ez banuke nik  
nolabait ondo salduko  
gaur detan egoera tristea  
jasotzeik ez det lortuko  
aitona ez nago ez didazunik  
ekintza hau barkatuko  
nahiz eta saldu zure ilobak  
ez zaitu inoiz ahaztuko.

## **T. EZPONDA - M. AROZENA**

*Gaia:* Zu, Ezponda, herrian barna pasiatzen zabiltzanean, orain dela bortsu urte etxetik alde egin zuen Manolo, zure semea, ikusi duzu lurrean jarrita, eskua luzaturik duela, eskean.  
Hiruna bertso zortziko haundian Ezponda hasita.

*Tx. Ezponda:* Orain duela laubortsu bat urte  
ihes egin zuen semeak  
eta ordutik jakitekoak  
nintuen bere berriak  
nigarretan gaur gelditzen zaizkit  
neronentzat bi begiak  
altxa hortikan semea eta  
etxeratu gaiten biak (bis).

*M. Arozena:* Zer ari zera kale bazterren  
aitan lehenengo galdera  
ez pentsa zure esanarekin  
morala joan danik behera  
negar malkokin egin didazu  
zuk neri hemen harrera  
aurren bidali etxetik eta  
orain lotsatzen al zera? (bis).

*Tx. Ezponda:* Orain arte're nik ezin esan  
ez dedala ein nigarrik  
hi joan eta ama ta biak  
egon gintukan bakarrik  
gure semetxo umuldu eta  
etxean ez zukan indarrik  
lehenago ere ez huen ahal ta  
urruntzearen beharrik (bis).

*M. Arozena:* Semea hola ikusitzea  
nahiko gauza itxusia  
pentsa ezazu ez zendun egin  
egin zenazken guzia  
ez eskola ta ez errespeto  
nintzan bazterren utzia  
zalantzan nago zu zer zeraden  
aita edo nagusia (bis).

*Tx. Ezponda:* Nik uste nian bai semeari  
zerbait esan behar zala  
eta hi ere gaztea hintzan  
pazientzian apala  
bien arteko gora behera  
izan bait zaigu argala  
etor hadi ta bizi gaitezen  
aita semeak bezala (bis).

*M. Arozena:* Itxura baten sendatu zaio  
berak bihotzen zun gaitza  
orain semea kalen eskean  
horra hor azken emaitza  
nere erara egin nahi dut nik  
mundu hortako bizitza

zoaz etxera ni konforme naiz  
alper alperrik zabilta (bis).

### X SILVEIRA - B. ELIZAGOIEN

*Gaia:* Zuk, Silveira, Iruñeko katedrala erosi nahi duzu, bertan hipermerkatu bat paratzeko. Horretarako, Bittor, Iruñeko gotzaiarengana joan zara tratua egitera.  
Hiruna bertso zortziko haundian Silveira hasita.

- X. Silveira:* Katedrala eske etorri naiz  
apezpikuan aldera  
egunero ni ez naiz etortzen  
holako jenden artera  
baina zuk niri hori saltzea  
beti zure mesedera  
Aita Santua egingo zaitut  
katedralean trukera (bis).
- B. Elizagoien:* Lotsarik gabe zuk katedrala  
egin didazu eskatu  
eliz kontutan egia esan  
ni egiten naiz kezkatu  
ibili zaitetz txintxo txintxo  
eta txintxorik portatu  
gure Jainkoak egin zuenik  
guk ezin degu hondatu (bis).
- X. Silveira:* Jangoikoaren kontu hoiekin  
dator Bittor neregana  
ez da zeharo polita ere  
apezpiku honen plana  
jantzi korbata eta trajea  
kendu ezazu sotana  
sozio erara egingo degu  
supermerkau haundi bana (bis).
- B. Elizagoien:* Supermerkadu egin nahiean  
zabiltz oihua dario  
ta katedrala bota nahi duzu  
gauza horren ondorio  
nagon lekutik lagun Silveira  
esaten dizut serio:  
hemen fedea galdu ezkeru  
diruak ez du balio (bis).
- X. Silveira:* Iruñeko apaiz zahar hau ere  
ez al dago nahiko zora  
katedrala eta Jangoikoa  
hortxen behera eta gora  
ahantzi ezazu fedetasuna  
ta eskuan hartu moda  
edo bestela laister Iruña  
Batikano izango da (bis).
- B. Elizagoien:* Nagon lekutik ez dut onartzen

eman didazun aukera  
ta hitzegiten hasi zerare  
hemen elizan kaltera  
harro zabiltza burua gora  
harro zahar baten antzera  
bainan hiltzean denak bezala  
zu're apalduko zera (bis).

## E. ALKHAT - M. XALBADOR

*Gaia:* Zu, Alkat, Iruñeko uso bat zara eta oraintxe joan zara Xalbador, Iruñeko alkatearen leihora; alkate honek erran duelako ez emateko jatekorik usoei, 40.000 direlako eta izugarritzko buruhaustea ematen dituztelako. Hiruna bertso zortziko haundian Alkat hasita.

*E. Alkhat:*

Alkate jauna ez zazula zuk  
naizen usoa ofentsa.  
orain artean ez da sartua  
gaur gosetearen gaitza  
gizonek eta xoriek ere  
merezi dute laguntza  
nik Iruñari eskaintzen bait dut  
Jainkoaren esperantza (bis).

*M. Xalbador:*

Bainan galdezka etortzen zauzkit  
etxeak eta auzoak  
auzapezarentzat egun batzu  
ez dira arras gozoak  
deneri ere zabal nitzazke  
nik pozik nere besoak  
bainan jendeak lanik gabe ta  
nola haz laizke usoak (bis).

*E. Alkhat:*

Zer dezu bada zuk hitz emaiten  
boto hori galdatzean  
zergatik ere zure Herria  
gelditzen zaizu gosean  
ene ustean ahula zera  
eta indar eskasean  
zure etxerat ni jingo naiz ba  
katedralea saltzean (bis).

*M. Xalbador:*

Urrikari ditut nik usoak  
gorakoa ta apala  
berunek bere etxetzat hartu  
nahi du naski katedrala  
bizitzeko're izanen duzu  
zerbait bilatzen ahala  
eta nolazpait biziko zira  
zuk ahal duzun bezala (bis).

*E. Alkhat:*

Herri gizonen modurat naski  
zernahi heldu afora  
herri bat hola edertzekotan  
behar uso, behar lora  
alkategoan higatu zaigu

naski sobera denbora  
jinen zauzkizuen hauteskundetan  
bota zazue kanpora (bis).

*M. Xalbador:*

Uso polita beti goستن  
dut zure itxura leguna  
eta alkate izanagatik  
naiz zuretako laguna  
usoer ere hola nik nola  
eman nere erantzuna  
jatera ez dauzut eman baina  
baduzu askatasuna (bis).

## ZORTZIKO TXIKIAN HIRUNA BERTSO

### E. AROZENA - T. EZPONDA

*Gaia:* Zuek, Estitxu eta Ezponda, igogailu batean zaudete eta halako batean argia joan da eta preso gelditu zarete barrenean. Etxe berean bizi bazarete ere ezin duzue elkar ikusi, ez duzue elkar batere maite. Hiruna bertso zortziko txikian Estitxu hasita.

*E. Arozena:*

Nere bizilaguna  
mutiko mardula  
kriston malaletxea  
aurpegian dula  
orain aszensorea  
gelditu zaigula  
zihur ni izorratzeko  
nahita egin dula (bis).

*Tx. Ezponda:*

Esan duzun gauz hori  
ez dago polita  
ez da ezer eginen  
ni zuri jakinta  
lehendik ere ez zaude  
zu neska polita  
orain kontentu nago  
argia hil bait da (bis).

*E. Arozena:*

Zuretzat okerrago  
bide hau hartzea  
normala da zurekin  
gaur haserratzea  
antolatu bait duzu  
holako trantzea  
zaila izango duzu  
pakea lortzea (bis).

*Tx. Ezponda:*

Pakean bizitzea  
gauza naturala  
orain artean beti  
bizi naiz ni hala  
uste al dezu nik hau  
makurtu detala  
kontura bi eskuak

zarpan ditutala (bis).

*E. Arozena:*

Aszensorea ez da  
iritxiko garaiz  
holako asuntoak  
nola ez diren maiz  
baina hala're nago  
ni aurpegi alaiz  
gaurtik aurrera oinez  
ni igoko bait naiz (bis).

*Tx. Ezponda:*

Aspaldian zindudan  
ni agurtzekua  
beti baztertzen zindun  
zuk neri burua  
zoriontsu gaur ere  
argi gabekua  
litzione bat hartzeko  
hau bada nahikua (bis).

### **M. AROZENA - J.M. ARGIÑARENA**

*Gaia:* Zu, Manolo, gaur goizean zure herritik Gaiarrera etorri zarenean finalean kantatzeko, Argiñarena atezainak erran dizu ezin zinela sartu bertze jendeak bezala ordaintzen ez bazenuen.  
Hiruna bertso zortziko txikian Manolo hasita.

*M. Arozena:*

Bertsolaritzak badu  
hainbertze histori  
zure errana entzunda  
ezin naiz erori  
kanturako badaukat  
hainbat kategori  
utzi zaidak pasatzen  
ergel alu hori.

*J.M. Argiñarena:*

Amenazorik gabe  
suabe suabe  
hasi zaitte hizketan  
ta zuretzat hobe  
ordainduta sartu da  
makina bat jende  
ta zu ezin zera hor  
sartu txartel gabe.

*M. Arozena:*

Orain hasia daukat  
nik odola pizten  
letxe txarrean nago  
ia irakiten  
nola jarri haute hemen  
hola astakirten  
txapeldunai ez zaio  
holakoik egiten.

*J.M. Argiñarena:*

Ez zaitezela bide  
eskasera erori

ez det sinistatutzen  
esan dezun hori  
txapelduna zerala  
ta hainbeste histori  
nundikan daukazu gaur  
hainbat kategori.

*M. Arozena:*

Kategoria daukat  
nik nere barruan  
bainan haserratu nauk  
hoi entzundakuan  
mesedez bukatzeko  
hemendikan juan  
kanporakon kopakin  
jo gabe buruan.

*J.M. Argiñarena:*

Jar zaitea patxadan  
har zazu arnasa  
biok berotu eta  
holako jolasa  
zerbait izan zindezke  
bertsolari gisa  
baina gizon moduan  
pertsona eskasa.

## **B. ELIZAGOIEN - E. ALKHAT**

*Gaia:* Zu, Bittor, garai batean Alkhaten irakaslea izan zinen. Gaur, ordea, Alkhat zure semearen maixua da. Zure semeak Alkhatek erakusten dion gaien esamina laugarren aldiz huts egin eta gero Alkhatekin mintzatzera joan zara. Hiruna bertso zortziko txikian Bittor hasita.

*B. Elizagoien:*

Nere semea dabil  
nahikoa itsusi  
hargatik beharko det  
nik hizketan hasi  
nahiz ta lehenago nizun  
asko irakatsi  
irakasle bezela  
ez dezu ikasi (bis).

*E. Alkhat:*

Zu maixu ona zinen  
maixu berezia  
zartakoak urririk  
merke erasia  
zure semeak aldiz  
ba dauka grazia  
hari erakasten dut  
zuri ikasia (bis).

*B. Elizagoien:*

Orain bota didazu  
arrazoi trebea  
bainan ixilik egon  
zurretat hobea  
lehen nahiz ta ikasi zuk  
hor kalidatea  
burua bauzu bainan  
mamirik gabea (bis).

*E. Alkhat:*

Nere buru ttikiak  
mami haundia du  
lehen ikasi gauzik  
ez dut inoiz galdu  
zerbaiten erraiterat  
aita nahiz zu heldu  
ni pakean utzi ta  
semea lagundu (bis).

*B. Elizagoien:*

Semeai laguntzarik  
ez diot ukatu  
baina zurekin ia  
egin naiz nazkatu  
orain beste gauza bat  
egin dut pentsatu  
semea beharko dut  
eskolaz aldatu (bis).

*E. Alkhat:*

Aldatzea on dela  
ez dago segurra  
ondo ikas lezake  
hark nere apurra  
bainan etxeari du  
egin behar agurra  
txarren laguntza bait du  
aitaren beldurra (bis).

### **M. XALBADOR – X. SILVEIRA**

*Gaia:* Zuk, Xalbador, ez duzu lanik eta egunkarian iragarki hau irakurri duzu: "pertsone bat behar da haurra zaintzeko".  
Etxe horretara joan zara eta Silveirak ideki dizu atea eta -ni naiz haurra- erran dizu.  
Hiruna bertso zortziko txikian Xalbador hasita.

*M. Xalbador:*

Langabeziak bait du  
egoera txarra  
zertara heldu nintzan  
etxe huntat horra  
haur bat badela hemen  
nik zaindu beharra  
badakizia zein den  
zuk hemengo haurra? (bis).

*X. Silveira:*

Xalbadorrek omen du  
ni zaindu gura  
baina ez dauka honek  
nola halako piura  
ni berriz painalekin  
txanoa burura  
ez al didazu hartzen  
haur baten itxura? (bis).

*M. Xalbador:*

Sartu orduko behar  
nuen zein zen jakin  
bainan segurtatzeko

galdea dut egin  
haur bat behintzat badela  
hartzen dut atsegin  
haur galanta zera zu  
kasketa horrekin (bis).

*X. Silveira:*

Burua altu ta harro  
heldu da honera  
ume txiki potxolo  
honetxen etxera  
baina begiratuaz  
nere eskuinera  
berak zainduko nau ni  
edo ta nik bera? (bis).

*M. Xalbador:*

Haurra dela ta hunek  
badaki bertsotan  
holakorik ez nuen  
ikusi auzotan  
pisuegi da ta nik  
nola atxik altzotan  
kasketa hau ken beza  
gaur nik zaintzekotan (bis).

*X. Silveira:*

Eta ergelkeritan  
ari da oraindik  
nondik heldu ote da  
tipo hau holarik  
eta nor ez da harritzen  
hori ikusirik  
nahigo dut geratu  
etxean bakarrik (bis).

## **BAKARKAKO LANA**

### **PUNTUA ETA LAU OINAK EMANDA**

*M. Taberna:*

Udaberri honetan  
bihotzak zer dio?

*J.M. Argiñarena:*

San Josak ezkeroztikan  
daukat nik serio  
ametsak egiteak  
ez digu balio  
negurikan ez zaigu  
joan oraindio.

*Sarea, gordea, nerea eta ordea*

*J.M. Argiñarena:*

Atera nahi dut barrun  
dagona gordea  
ahal balitz pasatu nahi  
det gaurko sarea  
baina zaila uste dut  
egiten nerea

maisu tartean hemen  
bait nago ordea.

*M. Taberna:*

Batzuek lan sobera  
bertzeak lan gabe

*E. Arozena:*

Eta pobrezi baten  
hor bizi dirade  
lan gabe dabiltzanak  
daude hutsan pare  
hoiek nola diraden  
gizarten mirabe.

*Itsusia, bizia, auzia eta guzia*

*E. Arozena:*

Bertsoen inguruan  
neronen bizia  
txapelketa kontua  
nahiko itxusia  
urduritasun baten  
betetzen auzia  
paper ona egitea  
nahi dudan guzia (bis).

*M. Taberna:*

Hizkuntza hauxe dugu  
gure lokarria

*Tx. Ezponda:*

Hau dago gurea ta  
hau dago herria  
gure artean dago  
hain zoragarria  
hizkuntza hunek nau ni  
hunat ekarria.

*Dago, nahiago, soldado eta akabo*

*Tx. Ezponda:*

Xapelketako lana  
oso zaila dago  
kanpoan aske banintz  
bait nuke nahiago  
hemen nahiz epaileak  
dien hoién soldado  
gaizki egiten badet  
nerea akabo.

*M. Taberna:*

Iruña, Donazarre  
Luzaide, Sunbilla

*M. Arozena:*

Txapelketan ortzadarra  
buelbaka dabila  
gazteak irtetzen eta  
ez nago ixila  
bertsolaitzan onerako

hau izan dadila.

*Utzi, gutxi, zortzi eta irrintzi*

M. Arozena:

Aspaldin Nafarroan  
bertsolari gutxi  
nahiz bi berri gaur hemen (bis)  
badirade zortzi  
etorkizunan aurren  
eiten dut irrintzi  
nere laguntzik gabe (bis)  
hoiek ezin utzi.

M. Taberna:

Gazteak heldu dira  
sendo eta finak

X. Silveira:

Manolok eta Bittorrek  
nola hala eginak  
zaharrak eta gazteak  
ez gera berdinak  
gazteak izango gera  
bertsolaik haundinak.

*Gogor, jator nator eta inor*

X. Silveira:

Frantsez ta Españolek  
guri emanik gogor  
guzti hori salatzera  
zuengana nator  
borrokatu gaitezen  
gu guztiak jator  
zapaltzaile horiek  
ez bait dira inor (bis).

M. Taberna:

Txapelketa ondotik  
segitu kantari

B. Elizagoien:

Zerbait beharra bada  
ez al da nabari  
ez diot ekenduko  
txapelketa hari  
baina aurrera ere  
jarraitu lanari.

*Topa, tropa, Europa eta opa*

B. Elizagoien:

Nahiz ta gudari batzu  
etsai hoiek topa  
oraindik borrokako  
badaukagu tropa  
Euskal Herria bakarrik  
hartuz Europa  
askatasuna hemen  
behar dugu opa (bis).

*M. Taberna:*

Ile batzuk erori  
zuritu besteak

*E. Alkhat:*

Negarra ematen dit  
horren ikusteak  
bainan atzetik daude  
lagunak maiteak  
hori da seinale bat  
ez gara gazteak.

*Usaia, lasaia, etsaia eta garaia*

*E. Alkhat:*

Zapalkuntza jasaiten  
badugu usaia  
euskalduna gaur egun  
ez dago lasaia  
espanto ta orroaz  
entzuten etsaia  
pakearen sortzeko  
orai da garaia.

*M. Taberna:*

Bertso hauekin egin  
genezake dantza

*M. Xalbador:*

Aspaldi hasi giren ta  
bagoaz gorantza  
gazte hauek dute bertso  
lari onen antza  
hauek ikusi eta nork  
ez har esperantza.

*Iduria, zauria, euria eta ixuria*

*M. Xalbador:*

Artapalo izan zen  
gaur zortzi euria  
zerbait zerbait bazuen  
berak ixuria  
bere galtzeaz badut  
nik nere zauria  
noiz izanen da libro  
bere iduria.

## **KARTZELAKO GAIA**

1. Azken puntua emanda bertsoa osatu zortziko haundian.

**Mende honetan ez da gertatu  
hurrengoan bai agian.**

2. Hiru bertso neuni eta doinu librean kantatzeko gaia:

"Afrikatik hona etorri zara lan egitera, baina poliziak harrapatu zaitu legez kanpo zaudelako. Orain berriz ere zure herrira eramanen zaituen hegazkin edo abioiaren esperoan zaude."

*J.M. Argiñarena:*

Hainbeste zahar ta hainbeste gazte  
joan daneko aspaldian  
murgildurikan herri honek gaur  
duen arazo haundian  
bainan sinistu bagoztela  
askatasunen bidian  
**mende honetan ez da gertatu  
hurrengoan bai agian.**

*J.M. Argiñarena:*

Hau egoera eskasa eta  
hau egoera iluna  
pertsonek ez du bere bihotza  
behar bezain biguna  
Afrikatikan lanaren bila  
etorria nintzan hona  
beltza naizelako ni kolorez  
ez ote naiz pertsona  
ta arazo hau ez da nerea  
baizikan gaur askona (bis).

Kolorez beltza naizelako ni  
nauzue hemen baztertu  
nere doaiak baditut eta  
ez al nindeken uztartu  
gizarte hontan alkartasuna  
behar genduke berotu  
beltza naizelakoz bakarrik nik  
ezin nezake gerate  
aman semeak gera gu ere.  
zertan horrela jipoitu (bis).

Afrikatikan etorri nintzan  
han ere nik bait nun ezin  
lana eginda hemen bizitza  
egin askoz behar dan grazin  
bainan ez gaituzte hemen hartu  
behar gendun konbenentzin  
harunzkaldera berriz jotean  
esangot lehelengo irrintzin  
oraindik ere demokrazirik  
ez daukatela Espainin (bis).

*E. Arozena:*

Orain artean gu lasai gaude  
ta aurpegia irrian  
baina diote egoera hau  
dela denbora urrian  
agian dena bukatuko da  
munduan eta bizian  
**mende honetan ez da gertatu  
hurrengoan bai agian.**

*E. Arozena:*

Mundu pobretik etorria naiz  
ta hasieratik kexa  
nere ahaleginek etorkizunan

ondorioa izan beza  
nik ez dut lortu estatu hontan  
pentsatzen nuen babes  
nik uste nuen mundu honetan  
bizia zela erreza (bis).

Bizi honeri eman nahi nion  
enbido edo hordago  
hegazkinan zai nago hementxe  
urduri ta tristeago  
baina nere estatu haretan  
bizi dugu akabo  
zertarako da eskubidea  
biderikan ez badago (bis).

Alde batetikan besteraino  
haxe da bizi zoroa  
urte luzetan hemen geratu  
hori zen nere asmoa  
baina hemen ere bizi haxe  
nola ez den oparoa  
seme alabak besarkatzeko  
orain hasi zait gogoa (bis).

*Tx. Ezponda:*

Sentimenduak eman ditugu  
aspalditik agerian  
askatasuna nahi ginduke  
izandu Euskal Herrian  
batzuek aske izanagatik  
beste batzuk itzalpian  
**mende honetan ez da gertatu  
hurrengoan bai agian.**

*Tx. Ezponda:*

Hegazkin hori gaur ez dadila  
pausatu nere aurrean  
lehenago ere gosea zegon  
ni sortu nintzan lurrean  
eta Frantzira etorri nintzan  
ari beharrez lanean  
hemen ere gaur gizona dago  
nahiko nahigabe  
hau ere behar nun hemen ikusi  
hogoigarren gizartean (bis).

Gure lurretik airatu ginden  
bizi ginenak tristerik  
honeratu ta ez nuen uste  
gauza hunen ikusterik  
lanean ari nahi duenaintzat  
ez dela eskubiderik  
ez nagoela bertakoa ta  
ez dut izaten paperik  
ahal ta ez nuen ezer galdetzen

lan egitea besterik (bis).

Hemen zai nago hegazkin hori  
nere aurreratu arte  
handik honuntza etortzean hoi  
itxaropenez nun bete  
baina horra nun bialtzen nauten  
lur huntatikan aparte  
gisa hortako lege zikinak  
inolaz ezin ttut maite  
lehen hegazkina neuk ordaindu nun  
orain hauk ordaintzen naute (bis).

*M. Arozena:*

Kutsaduraren arazo asko  
itsaso eta mendian  
gure zikinen ondorena da  
hori lehen bagenekian  
ozono kapa zulatu da ta  
denak lurpera beharrian  
**mende honetan ez da gertatu  
hurrengoan bai agian.**

*M. Arozena:*

Leku pobrean sortua naiz ni  
egin behar dut aitortza  
erreka ondoan zikinkeritan  
bazan etsaiaren hotsa  
galdu nituan nortasuna ta  
nahastu zitzaidan ahotsa  
estranjerira morrontza (bis)  
han utzi nitun aita ta ama  
senide eta bihotza  
ez nuen uste herritik kanpo  
zenikan honen zorrotza (bis).

Igaro nuen Estretxoa ta  
nenbilen ni nahiko alai  
pentsatzen nuan jende jatorra  
nunbait bilatuko dut zai  
bainan azkenen zer izanen da  
horra hamar mila etsai  
txarra det bihotz ta usai (bis)  
zer egingo det orain banoa  
nahiz ta hemen utzik sustrai  
azken batean ogi pixka bat  
besterikan ez nuan nahi (bis).

Negarrez nago eskailleratan  
itzali da nere printza  
berriro lehengo leku txarreko  
bide gaiztoan gabiltza  
hemendik orain Euskal Herriai  
nahi diot egin eskeintza  
ez zera jende murrirtza (bis)

zure borrokan egon litake  
askatasunaren giltza  
hil artean nik ez dut ahaztuko  
abertzaleon bizitza (bis).

*X. Silveira:*

Euskal Herria jarri nahi dugu  
independenten parian  
bainan momentuz ez dugu eta  
gogor saiatu gaitian  
eman ez digute eman nahi ta  
oraindik dago aidian  
**mende honetan ez da gertatu  
hurrengoan bai agian.**

*X. Silveira:*

Mila bederatzirehun eta  
laroegi ta hamabiko  
Español gobernuan legeak  
hor jarraitzen dute tinko  
berriro ere Afrikaruntza  
joan nahiean betiko  
baina nola hala itzuliko naiz  
sekula ez dut etsiko.

Itsasuntzian pixka bat eta  
igerian barra barra  
ozeanoa pasatzerako  
joan da nere indarra  
paisa edo ta izan nahi nuen  
baina hau da zoritxarra  
dirurik ez dagoen lekura  
berriz itzuli beharra.

Herri hontara etorri nintzan  
egin nahi hainbat azaina  
ilegal eran nago badakit  
ezin zaitzuet engaina  
txoria gari tartean gosez  
gauza tristea da baina  
ez da izango berriro haruntz  
joan behar izatean haina.

*B. Elizagoien:*

Zoritxarrea bizi gerade  
Frantzi Españan menpian  
zoritxarrea Euskal Herria  
zapaldirikan azpian  
bainan hala're askatasuna  
aurrera doa bidian  
**mende honetan ez da gertatu  
hurrengoan bai agian.**

*B. Elizagoien:*

Alde batetik gosea eta  
bertze aldetikan hotza  
lanaren bidez lortu nahi nuen

mundu honetako poza  
berriz bialdu nahi naute harat  
hauxe da une zorrotza  
zoritxarrean eraman behar  
etsai gaiztoen morrontza  
nahiz ta larrua beltza daukadan  
nik ere badut bihotza (bis).

Afrikan gosez eta miseriz  
nola ginaden gu bizi  
hargatik honuntz etorri naiz ta  
hemen lana bila hasi  
orain atzetik hainbertze ertzain  
bertze hainbertze polizi  
Afrikaldeko gisan hemen'e  
ez dago nahiko justizi  
lanaren bila heldu zen batek  
hori al zuen merezi? (bis).

Begiak dauzkat negar malkotan  
eta tristerik barrena  
erran nezake iritsi dela  
gaur munduaren azkena  
berriz banoa basamortura  
hori senti dedan pena  
hemen dagoen justizia da  
hori gauzarik txarrena  
gure Jainkoak emango al dit  
hemen eman ez dutena (bis).

*E. Alkhat:*

Hoinbertze jende ta herrialde  
beti negarra begian  
zapalkuntzaren meneko daude  
eta hori aspaldian  
muga guziak hautsi ditezen  
oihuz nago errabian  
**mende honetan ez da gertatu  
hurrengoan bai agian.**

*E. Alkhat:*

Miseria zen ene herrian  
hori zer ezin bertzea  
nik ere zerbait jan nahi eta  
aldamenean gosea  
asko gusta zait nere herritik  
zuen herrirat heltzea  
zailago berriz nigarrekilan  
harat berriz itzultzea  
holako pekatua ote da  
ogiarene eskatzea? (bis).

Neure herriko poliza ere  
nuela nik gorrotatzen  
mundu guzian berdinak dira

hori zait bai iduritzen  
nere paperak ta ageriak  
nunbeit dituzte gordetzen  
eta gainera beltza naizenez  
tristeki naute bazterten  
noizko egunak elgarrekilan  
pakean bizi gaitezen (bis)

Itsaso eta menditan gaindi  
bidaia nuen egina  
nere herria hola uzteko  
banuen bai bihotz mina  
esperantza zen zuen herria  
bilatzeko atsegina  
etorri eta itzuli behar  
gelditzea zaut ezina  
puska nezazke polizia ta  
puskanio hegazkina (bis).

*M. Xalbador:*

Gaizkia ongi bihurtu nahiz  
hemen gabiltz errabian  
hainbertze lan guk egiten dugu  
hortako Euskal Herrian  
hemen gabiltza denentzat lana  
ta askatasuna nahian  
**mende honetan ez da gertatu  
hurrengoan bai agian.**

*M. Xalbador:*

Bizi hunetan zenbait bihotz min  
enetzat bazen egina  
Afrikan hasi zitzaizkitan ta  
segitzen zaizkit aintzina  
han ez zagola eta lanera  
hunarar nintzen ni jina  
eta berriro harat joateko  
heldu dela hegazkina  
hobe ginuke nahi dugun leku  
hartan librean bagina (bis).

Gaizki haundirik egin dutala  
ez dautazue erranen  
ebatsi nahiz ez nintzan jina  
hemen xuhur diren lanen  
baina lanikan nunbait enetzat  
ez nuen ez atzemanen  
behintzat atzeman gabe ni naute  
Afrikarat eremanen  
ikusten dut askatasunik ez  
dagola ez han ez hemen (bis).

Hemen bezala jin nintzanean  
Afrikan ere zerbait zen  
han miseria izan dugula  
hemen erranen dut ozen  
zuriek beltzer begi ilunez

digute gaur begiratzen  
baina gizonak ari direnak  
mundu hunen gobernatzen  
berdin bihotzik gabeak dira  
bai zurien ta bai beltzen (bis).

## **SARI BANAKETA**

Azkenean epaimahaikideen deliberoa Mikel Tabernak azaldu zuen orden honetan:

"Bertso Onenaren" saria Bittor Elizagoien arraioztarrantzat izan zen eta Iruñeko Udalaren kopa eskuratu zuen.

Estitxu Arozenak 479'5 puntu eta Emile Larrek kopa eta 25.000 peztako diru saria eman zizkion.

Jose Migel Argiñarena 494 puntu eta Mikel Bujandak kopa eta 25.000 peztako diru saria eman zizkion.

Txomin Ezpondak 494'5 puntu eta Jose Urrozen eskutik jaso zituen kopa eta 25.000 pezeta.

Xabier Silveirak 500'5 puntu eta Nafarroako Kutzaren izenean Tasio Agerrek eman zizkion kopa eta 25.000 pezeta.

Ernest Alkat 512 puntu eta Iruñeko Aurrezki Kutzaren izenean Jose Antonio Solanoren eskutik kopa eta 25.000 pezeta jaso zituen.

Mixel Aire "Xalbador II" 512'5 puntu eta Lankide Aurrezki Kutzaren izenean Iñaki Urtasunek kopa eta 25.000 pezeta eman zizkion.

Bittor Elizagoien txapeldunorde 522'5 punturekin. Euskal Herriko Bertsolarien elkartearen izenean Imanol Lazkano Lehendakariak kopa eta 100.000 pezeta eman zizkion.

Manolo Arozena txapeldun 531 punturekin. Nafarroako Bertsolarien Lagunak elkartearen izenean Mariano Izetak kopa eta 125.000 pezeta eman zizkion.

## **AZKEN AGURRAK**

*J.M. Argiñarena:*

Zorionak Manolo  
hiri lehendabizi  
Bittor gutxiorikan  
hik ez dek merezi  
pozik naiz nahiz saririk  
gaur ez nik iritxi  
patxara lortu det ta  
hori ez da gutxi  
zueri mila esker  
ta goiari eutsi (bis).

*E. Arozena:*

Lehenengo aldia izateko ere  
ez da izan hain ahula  
nahiz hasieran ondo joa  
nerbioaren brujula  
baina pasa dena ez al da izan  
kasualidade mardula

txapela eta azken puestua  
etxeratu ditugula (bis).

*Tx. Ezponda:*

Ez da goizegi legortu dira  
gure gaurko izerdiak  
bakotxak hemen eskutatu ttu  
hartze zituen sariak  
anai arrebak eskertzen ditut  
zuen txalo ugariak  
ikusi arte eta on egin  
daitzutela bazkariak.

*X. Silveira:*

Egin dudana peñari esker  
pozik egon zintezkete  
bainon gure idolo behar lukenak  
exiliatua daukate  
hemen txapela ez zun inork behar  
Jesus Arzallusek beste  
barkatu Jesus zure papera  
ez badut hain ondo bete (bis).

*E. Alkhat:*

Lehen postu lortua zuen  
jokatzeko finalean  
etorriko da erran bezala  
muga kentzen dugunean  
agurrak eta esker beroak  
orain bien izenean  
segi dezagun bertsolaritza  
bihotzaren erranean  
elgarrekilan aurrera beti  
Nafarrarentzat lanean (bis).

*M. Xalbador:*

Ahal bezala eman ditugu  
zuentzat hoinbertze bertsu  
nik ere pena ez zirelako  
hemen gure lagun batzu  
poz bat badaukat bertsolaritza  
gaur ez bait daukagu itsu  
segi aurrera gazte maiteak  
entzunez zenbait abisu  
eta guztiek kanta dezagun  
Xabier eta Estitxu.

*B. Elizagoien:*

Agur bero bat entzule maite  
ta agur Gaiarre dena  
nerbio danak bukatu zaizkit  
eta lasaitu barrena  
txapeldun orde egin naute ni  
ta txapeldun Arozena  
egia esan pozetan nago  
ez dut sentituko pena  
txapelarekin ikustean gaur  
nere lagunik onena (bis).

*M. Arozena:*

Gaur bezin egun politik ez dut  
bizitzan izan askotan  
nahiz ta lehen ere une batzuak  
baditut nere gogotan  
bainan ez nago egindakoa  
ni bertan utzi asmotan  
bi gazte berri hor daudela ta  
ezin gera geldi lotan  
landarek zuhaitz egin artean  
jarrai dezagun bertsotan (bis).

Imanol Lazkanok Euskalerriko Bertsolarien elkartearen izenean Bittor Elizagoieni saria eman eta gero bertso hau bota zuen:

Euskera eta bertsoa dira  
betiko buru haustek  
bainan oraingoz Nafar aldetik  
ez dira kontu tristeak  
zaharrak ahultzen hasi baino lehen  
heldu dirade gazteak  
poztutzen gaitu Naparru zaharra  
horren harro ikusteak.